

OYARZUNGO EUSKAL-FESTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Oyarzuna, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurtan, izkribatzalle eta musikarieren indar neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean: On Blas Pradere, On Pedro Maria Otaño eta On Baleriano Mokoroak, *Oyarzun eta bere seme ospatsubak*, *Anaitasuna=Pakeá*, eta *Damuba...* garaiz izentzat dituztenen gatik. Irabazi dituzte aldeerak On Miguel Antonio Iñarra, On Domingo Agirre, On José Ignazio Garmendia, On Marzelino Soroa eta On Miguel Antonio Iñarrak, *Oyarzun eta bere gloria hondairarak*, ¡Ai, balekite! *Gipuzkoako nekazarien esku-liburua*, *Berri-zar=Euskal-izengañiak*, eta *Erotaberrigorri* izendatzen diranakgatik. Irabazi dituzte aipamen onragarriyak On Franzisko Lopez Alén, On Biktoriano Iraola eta On José Artolak, *Lege zarrak eta oen Batzarreak*, *Pakearen ontasunak*, eta *Euskarazko lonbriak azalkaitzat* dauzkatengatik.

Erabaki da ere *Euskal-Erria-n* argitaratzea: *Lurreko zori aldiak*, *Bedeinkatua izan dedilla beti ta beti Pakia*, Bakarrizketa, eta *Oroitza* izentzat dituztenak, agerturik beren egilliak, zein diran: On Franzisko Lopez Alén, On José Artola, On José Ganboa eta On Ramón Gelbenzu.

Musikarieren artean sariyak irabazi dituzte: On Migel Oñatek, «Lartaun» izentzat duen Euskal-kanta moldaeragatik; eta On Kándido Buenecheak, «Jolasketa bat» izendatzen dan zortzikoagatik.

Donostian, 1897-ko Garagarrillaren 26-ean.

BATZARREAREN IZENEAN:

Dianagusia,

Goarpelaria;

ALFREDO DE LAFFITTE.

ANTONIO ARZÁC,